

ERRUKIZKO AITA

*Pozez nago kantari
zeruko Aitari,
maitez sortu ta erruki haundiz
salbau nauanari.*

1

Semeak alde egin dau,
Aita, urrutira,
baina Zu ezin zara
penaz erretira.
Egunero urtenda
etxe-atarira,
semea noiz helduko
ete dan begira.

2

Ardia galdu da ta
hor artzaina bila,
troka zuloan topau
deutsu erdi hila.
Bizkarrean hartuta
ai zer poz-pilpila!
Zorionak emonaz
hango jente pila!

3

Pekatarari dala ta
gizonak harrika,
legearen atxakiz
a ze erretolika!
Aita, Zuk aginduta
Jesus erruki da,
holan dala esanaz
Aitaren pratika.

4

Batzuk irribarre ta
besteak ukatu,
gurutz-ondoan bazan
zeinek kondenatu.
“Aita, ez hartu aintzat
Neugaitik parkatu,
danak salbatzera Zeuk
niduzun bialdu”

5

Jesus eta lapurra

biak gurutzean:

“Jesus, nitaz gomutau
zeruan sartzean”
-”Gaur han egongo zara
Neurekin batean,
Aitatxo han daukagu
geure zain atean”

6

Zeuk bialdu zenduan
Semea mundura,
errukitsu zarala
erakutsi gura...
“Izan errukiorrak
Aitaren modura;
danok salbatzea da
Aitaren ardura”

7

Bihotz haundiko Aita
ta errukiorra,
guk hau ez sinistea
hori bai gogorra!
Zelan izan leiteke
hain itsu ta gorra?
Hau da inoiz ordaindu
ezin dodan zorra.

8

Aita, hori bihotza
samur ta leiala,
errukizko itsaso
sakon ta zabala!
Egizu hau bihotzez
sinistu daidala!
Eskerrik asko, Aita,
bai ona zarala!